

Irakaskuntza publikan birbaremazioa eta esleipenak ordezkoentzat

Aurten birbaremazio garaia aurreratu da, eta **apirilaren 20tik 29ra** dugu epea. Dituzuen habilitazio guztiak erabili ahal izango duzue, administrazioak aspaldiko partez LABen aldarrikapenak onartu egin baititu:

- Esleipenean norberak dituen habilitazio eta hizkuntza eskakizun guztiak nahi duen modura eta ezertan behartu gabe;
- esleipen ekitaldi bakarra 3 herrialdeetarako

Badakigu delegazioan oztopoak jartzen ari direla haur hezkuntzaren 1. zikloaren zerbitzuak onartzeko. Gai hau, hain zuzen, irakaskuntza publikako mahaian eztabaidan dagoen horietariko bat da. LABen jarrera argia da, haur hezkuntzaren **bi zikloak onartu beharko lituzkete**. Administrazioak zalantzak azaltzen ditu lehen zikloaren ez arautuaren izaera dela eta, baina kontraesan nabarmenean daude, 2 urteko gelak ikastola guztietan dagoeneko zabaldu egin baitira, eta funtzionamendua 3 urte gorakoen gelen parekoa da.

Beraz, zerbitzu horiek aurkeztea merezi duela uste dugu, presio bidea egokia izan daitekeela. Baremoan ez badituzte kontutan izan, erreklamazioa egiteko epea jarraian dator, eta horren aurrean laguntza behar izanez gero gugana jo dezakezue zalantza barik.

Bide batez, **apirilaren 28an, Araban 27an, LAN OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA** dela, aldarrikapen eguna beraz, are gehiago langileen osasuna mutuen etekin iturria den denbora honetan.

Sektore guztietako delegatuak konzentrazioak burutuko dituzte goizez, mutua zein instituzio ezberdinen aurrean, hauen erantzunkizuna azalertzeko asmoz. **GEROA GORRIRA EKARRI!!**

**ta gogora ezazue MAIATZAREN 1ean
elkarrekin egongo garela IRUÑEAN zein BAIONAN!!!
ASKO GARA, BIL GAITEZEN!!!**

www.labsindikatu.org

Arabian
Bueno Monreal, 10 Behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
irakaskuntzaaraba@
labsindikatu.org

Bizkaian
Rekalde Zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
irakaskuntzabizkaia@
labsindikatu.org

Gipuzkoan
San Bladi, 1 behea
20013 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 472 709
irakaskuntzagipuzkoa@
labsindikatu.org

Nafarroan
Martxelo Zelaieta, 75-2A
31001 Iruñea
Telf.: 948 210 422
Faxa.: 948 221 276
irakaskuntzanafarroa@
labsindikatu.org

Iparraldean
13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@
labsindikatu.org

informazio